



UDALBATZAREN OSOKO BILKURAREN AKTA

Batzarra: Ez-Ohikoa
Deialdia: Lehena
Eguna: 2013/03/27
Ordua: 14.00 – 14.10
Lekua: Izurtzako Udalbatza aretoa

Bertaratuak:

LUIS JOSE BALLARIN ALBERDI jn. (BILDU)

PEDRO JOSE JAYO GOROSPE. jn. (BILDU)

MAIALEN SARASUA CENDOYA. And. (BILDU)

NEREA ZARRABEITIA ASUETA. And. (BILDU)

PAUL BAÑOS ONAINDIA jn. (BILDU)

OSKAR ZARRABEITIA ASUETA. jn. (EAJ-PNV)

Ez bertaratuak:

ETOR GORROÑO GEREDIAGA. jn. (EAJ-PNV)

Idazkaria: David Álvarez Martínez



Aztergaiak

- 1.- Aurreko Akta irakurri, eta ahala badagokio, onartzea
- 2.- Udal kudeaketa eta alkatearen dekretuen kontu ematea
- 3.- 2012ko kontu orokorraren onarpena, hala badagokio, onartzea
- 4.- Trakzio mekanikoen ibilgailuen gaineko zergaren errolda hasieran onartzea proposatzea, hala badagokio
- 5.- Herriko Tabernaren alokairuaren pleguak ezarri eta espedienteari hasiera emateko proposamena plenorako.
- 6.-Erreguak eta Galderak

Esan-eginak eta erabakiak

Jarraian, Alkate jaunak, azaroaren 28ko 2568-1986 Errege Dekretu bidez onetsitako Tokiko Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Araudiko 90. artikuluan zehaztutakoaren arabera, behar besteko quoruma dagoela egiaztatzeari ekin dio, eta batzordea eratutzat jo da.

1.-Aurreko Akta irakurri, eta hala badagokio, onartzea. (2013/02/28).

Alkateak, batzarrari hasiera eman ondoren, batzordekideren batek aktaren testuari buruzko adierazpenik egin nahi ote duen galdetu du eta, inork egin ez duenez, akta bozkatu eta bertaratutako kide guztien aho batez onetsi da.

2.- Udal kudeaketa eta alkatearen dekretuen kontu ematea.

Idazkari jaunak hitza hartu du eta 22tik 33ra Dekretuen berri laburki eman du.

Zenbakia	Gaia
22	Izurtzako jubilatutako elkarteari emandako diru laguntza
22-A	Zorren konpentsazio akordioa
23	Herriko Tabernaren alokairuaren esleipena
24	Gastu onarpena
25	Gastu onarpena
26	Gastu onarpena
27	Akats zuzenketa
28	Euskara suzutzeko emandako dirua laguntzak
29	Udal frontoia erabiltzeko baimena
30	Hesi baten kenketa agindua
31	Kirola suzutzeko emandako diru laguntza
32	Kirola suzutzeko emandako diru laguntza
33	Padroitik ofiziozko baja aitortzea

Osoko bilkura jakinean ipini da.

3.- 2012ko kontu orokorraren onarpena, hala badagokio, onartzea

2013ko martxoaren 1eko datarekin BAO argitaratu zen Udaleko Kontuen Batzorde Bereziak 2012 kontu orokorrari eman zion baiezpena. Galdapen epea igaro eta gero, ez dira galdapenik egon eta orduan, bertaratutako kideek aho batez onartu dute 2012ko kontu orokorra, eta Euskal Herriko kontu-auzitegiari eta Bizkaiko Foru Aldundiari bidaltzea erabaki da.

4.- Trakzio mekanikoen ibilgailuen gaineko zergaren errolda hasieran onartzea proposatzea, hala badagokio

Ez da inolako interbentziorik egon eta bertaratutako kideek errolda aho batez onartu dute, zerga ordaintzeko borondatezko epea, maiatzaren 15tik uztailaren 15raino, 13.00ak arte, jarri delarik eta akordio honen argitalpena onartu delarik

5.- Herriko Tabernaren alokairuaren pleguak ezarri eta espedienteari hasiera emateko proposamena plenorako.

Gai zerrendaren bosgarren puntua landu aurretik, Sarasua Cendoya andreak hitza hartu du eta berak gaiaren lanketan parte hartuko ez duela esan du berak interes zuzen eta gaian interes zuzena edukita abstentzio zergatian egon baitaiteke.

Ondoren 2013ko martxoaren 22ko Ogasun Batzordearen proposamenaren berri laburki eman da. Laguntzen duen dokumentazio guztia eta Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 2. xedapen gehigarrian kudeatzen dena ikusita, Udalnatzak bozketa egin ondoren kideek gehiengoz (aldeko 4 boto- BILDU UT- eta 1 abstentzio – EAJ UT-), ondorengo onartu dute:

LEHENENGO. Prozedura irekiz, ekonomikoki abantailatsuena den eskaintza, adjudikazio irizpide ugarirekin, egingo den Herriko tabernaren alokairu kontratazio espedientea onartzea, bere lizitazioa deituz.

BIGARREN. kontratazio espedientea kudeatuko duten administrazio-baldintza zehatzen agiria onartzea.

HIRUGARREN. Lizitazioari buruzko iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta kontratistaren profilean argitaratzea, horrela interesdunek hamabost eguneko epean nahi duten proposamenak aurkeztu ahal izateko

6.-Erreguak eta Galderak

Ez dira egon.

Horrenbestez, aztergai gehiago ez dagoenez, bilkura amaitutzat jotzen da, eta bertan aztertutakoa eta hartutako erabakiak jasotzeko honako akta hau egin dut, Alkate jaunaren oniritziarekin.

Idazkaria



O. E.
Alkatea



IZURTZA
UDALA